

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Iraila / 280 Zenbakia



ANDREkintzailea PROGRAMA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekono-
mi eta Lurralde Garapena Sus-
tatzeko Sailak antolatzen du
emakume enpresariei bidera-
tutako ANDREkintzailea progra-
ma, eta emakumeek zuzen-
dutako enpresak sendotzen

laguntzea du xede. Horren-
bestez, udako etenaldiaren
ondoren, berriro jarriko dira
abian programaren baitan
garatzen diren tailerrak, eta
coaching eta mentoring saio-
ak.

Uztailaren 5ean, BiDCeko Kontseilua bildu da, azaroan izango den DWeek 2017 prestatzeko, eta, hala, denen artean proposamenak egiteko eta interesa duten enpresek parte har dezaten bultzatzeko.

BiDCeko Kontseiluaren bilera

Uztailaren 5ean bildu da BiDCeko Kontseilua, azaroan izango den DWeek 2017 prestatzeko, eta, hala, denen artean proposamenak egiteko eta interesa duten enpresek parte har dezaten bultzatzeko. Bilbao Metropoli-30 elkarteak ere hartu du parte, Kontseiluko kidea baita.

Ekimenaren helburu nagusia industria sortzaileak (arkitektura, artisautzak, ikus-entzunezkoak, komunikazioa, eduki digitalak, diseinua, interiorismoa, moda eta bideo-jokoa) sustatzea da. Testuinguru horretan, azaroaren 17tik 30era bitartean hitzaldiak, tailerrak, erakusketak eta bestelako ekimen ugari egingo dira, industria horiek sustatzea xede izanik.



BiDC ekimenak sormena eta diseinua sustatzea du helburu, garapen ekonomikorako eta Bilbao Bizkaia nazioartean ezagutarazteko eragileak diren aldetik.

Bestalde, uztailaren 19an, BiDCk batzarra egin du, besteak beste, hiri 2016 ekitaldiaren biltzar-jardueraren balantzea egiteko eta 2017. urterako aurreikuspenez jarduteko.

Belfasteko (Ipar Irlanda) Queen's Unibertsitatea bisitan

Belfasteko Queen's Unibertsitatea hiri-zerbitzu publikoen kudeaketaren inguruko jardunbide egokiei buruzko azterlan bat egiten ari da; hain zuzen, gizarte-gatazkako egoeretan, hala nola, manifestazioetan, arraza-gatazketan eta antzekoetan hiri-zerbitzu publikoak nola kudeatu da aztergaia. Joanne Murphy doktorea Bilbon izan da uztailaren; bera da ikertzaile nagusia, eta George J. Mitchell senatariaren Bake Globalerako, Segurtasunerako eta Justiziarako Institutuko kidea ere bada, eta hiri-ingurune kudeaketa politiko eta sozialarekin zerikusia duten arlo eta zerbitzuetako arduradunekin aritu da hizketan.



Bilbao Matropolitarrak Birbizteko Elkarteak Bilbao Matropolitarraren suspertze-prozesua aurkeztu zion, krisi ekonomikoko garaian gauzatuak garapenaren eredu baita.

BAI SAREAREN bigarren topaketa

Emakundek Bai Sarearen bigarren topaketa egin du uztailaren 13an. Berdintasunerako Erakunde laguntzaile diren hainbat entitatek eta enpresak osatzen dute Bai Sarea, eta hau du helburu: lankidetzarako gune bat edukitzea, lan-alarreko genero-desberdintasunak murrizteko erakundeek abian jarritzen dituzten berdintasunerako planek eragin handiagoa izan dezaten. Bilbon izan da "Berdintasunezko erakunde-kultura" izenburuko jardunaldia, eta berdintasuna lortzeko abian jarritako ekimenetan izandako esperientzia eman dute jakitera erakundeek.



Bai Sarea 55 enpresak eta entitatek osatzen dute, eta topaketan 36k hartu dute parte, haien artean Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

Hego Koreako ordezkariak

Bilbao Internationalek proposatuta, irailaren 1ean Elkarteak egin zaie harrera Bilboko eraldaketaren prozesua aurrez aurre ezagutu nahi zuten Koreako zenbait ordezkari (Koreako Lurralde, Azpiegitura eta Garraio Ministerioa).



Academy of Urbanism-Hirigintzako Akademiaren ordezkariak

Bilbao Internationalek proposatuta, Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusiak Bilbao Matropolitarraren eraldaketaren nondik norakoak eta Elkarteak bera egiten ari den hausnarketa-prozesua azaldu dizkie The Academy of Urbanism-Hirigintzako Akademiako ordezkariak kideei. Epaimahaia Bilbon izan da hiria ebaluatzeko, eta Bilbok 2018. urteko Europako Hiririk Onena saria merezi duen erabakitzeke. Horretarako, hirigintza-arloko gaiak ebaluatzeaz gain, beste arlo batzuk ere ebaluatu ditu, hala nola, ingurumena, gizarteko zenbait arlo, alderdi berritzaileak, gobernantza eta identitatearen ingurukoak.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak harrera beroa egingen die Bilbao Matropolitarraren eraldaketa-prozesua aurrez aurre ezagutu nahi duten ordezkariak eta pertsonaldek.

Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusiak Bilbao Metropolitarraren eraldaketaren nondik norakoak eta Elkarte bera egiten ari den hausnarketa-prozesua azaldu dizkie The Academy of Urbanism-Hirigintzako Akademiako zenbait epaimahaikideri.

Ljubljana (Eslovenia) eta Viena (Austria) hirien aurka lehiatuko da Bilbao, eta epaimahaiak datorren azaroaren 8an jakinaraziko du, Londresen, zer hirik irabazi duen saria.

The Academy of Urbanism-Hirigintzako Akademia irabazi asmorik gabeko erakundea da, politikoki independentea, eta Erresuma Batuko eta Europako hiriak aintzat har daitezten bultzatzen du, hirigintza-arloko jardunbide egokiak identifikatzeko eta sustatzeko. Kalitate oneko hiri-ingurune berritzaileak eta jasagarriak eraikitzea xede duen erakundearen plataformarik garrantzitsuenak Hirigintza Sariak (Urbanism Awards) dira.

THE ACADEMY OF URBANISM

Arkitekturako eta hirigintzako profesionalek, urtero, nork bere proposamenak egiten ditu, eta, gero, haie-tatik hiru aukeratzeko dituzte hiririk bizigarrienen zerrenda osatzeko. Duela hamar urte hasi zen britainiar erakundea jardunbide egokien adibideak saritzen, zenbait arlo aztertuta, hala nola, hirigintza, lidergoa eta gobernantza, osasuna eta ongizatea, merkataritzaren bideragarritasuna eta arrakasta, eta ingurumenaren arloko iraunkortasuna. Aurten Bilbao aukeratu dute The

European City of the Year Award sarirako hiru finalistetako bat izateko.

Bilbao Ekintza

"Bilbao-Pittsburgh: Post-Industrial Cities" izenburuko workshop/mahai-ingurua (Bilbao Ekintza)

Elkartek "Bilbao-Pittsburgh: Post-Industrial Cities" izenburuko workshop/mahai-ingurua antolatzen parte hartu du irailaren 19an, Bilbao Ekintzan.

Bilbao eta Pittsburgh hiriak aspaldidanik daude senidetuta; biak hiri postindustrialak direnez, gauza askotan dira antzekoak, eta oso harreman estua dute.

Udalaren eta German Marshall erakundearen arteko harremanen esparruan, Carnegie Mellon Unibertsitateko Hiri Postindustrialen Institutuko zuzendari Don Carter jaunarekin batera, Pittsburgh hiriko ordezkari bat Bilbora ekartzeko ekimena sustatu da, Pittsburgh Technology Council eta Bilbao Internacional koordinazio-lanetan dihardutela. Helburua Bilboko eraldaketaren prozesua ezagutaraztea da.

Horren haritik beretik, Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusia parte hartzera gonbidatu dute, Bilbao Metropolitarraren susperraldi-prozesua azaltzeko.

World Cities (Bilbao)

Urriaren 9tik 13ra bitartean, Europar Batasunaren World Cities programan Europako hiriekin batera parte hartzen duten munduko gainerako hirietako ordezkariak izango dira bisitan, elkarrengandik ikasteko eta elkarlanean aritzeko.



World Cities

EU – Third Countries Cooperation on
Urban and Regional Development

Bilbok Lurmutur Hiriarekin batera hartuko du parte, eta horregatik izango dira Bilbon hango ordezkariak asteko lehendabiziko egunetan; gero, azken egunetan, parte hartzen duten hiri guztiak Bruselan elkartuko dira.

ULI Annual Conference, Varsovia (Polonia)

Londresko Urban Land Institute elkarteak antolatuta, ULI Europa biltzarra Varsovia izango da urriaren 16an eta 17an, eta aurten hau da gai nagusia: “Hiri-eraldaketen lidergoa, Erdialdeko Europako hirietan”.

Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusiak emango du hasierako hitzaldia, eta “Lidergo estrategikoa hirien eraldakuntzan” gaiaz arituko da; gero, gai nagusitzat “Garapen espazialaren eta ekonomikoaren arteko lotura” izango duten eztabaidan ere parte hartuko du.



Biltzarrean, besteak beste, gai hauek landuko dituzte: hiri-espazioaren erakargarritasuna, hiri inklusiboak eta inbertsio adimenduna hirietan.

ANDREkintzailea

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak antolatzen du emakume enpresariei bideratutako ANDREkintzailea programa, eta emakumeek zuzendutako enpresak sendotzen laguntzea du xede. Programa Bilbao Metropoli-30 elkarteak koordinatzen du, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen eta EmakumeEkin elkartearen laguntzarekin.

ANDREkintzailea urtebetean garatzen da, eta esperientziaren bidez lantzen dira, besteak beste, lidergoa, estrategia digitala, kudeaketa

Bilbao Metropoli-30 elkarteak World Cities Europako proiektuan laguntzen du, eta Bilboko Udala arituko da hirien garapenarekin lotutako eragile gisa.

Irailaren 21ean, Aktibatu + programaren Jarraipen Batzordeak bilera egingo du, eta Bilbao Metropoli-30 elkarteak ere hartuko du parte bertan.

komertziala zein kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta sormena.



Horrenbestez, udako etenaldiaren ondoren, berriro jarriko dira abian programaren baitan garatzen diren tailerrak, eta coaching eta mentoring saioak.

Aktibatu + programaren Jarraipen Batzordea

Irailaren 21ean egingo du bilera Aktibatu + programaren Jarraipen Batzordeak, eta Bilbao Metropoli-30 elkarteak ere hartuko du parte bertan.

Aktibatu + programa Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena da, ingurumenaren arloko iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzeko. Programa hori garatzen

laguntzen dute, baita ere, Garbiker Sozietate Publikoak, Eusko Jurlaritzak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Metro Bilbaok, Eroski Taldeak, Iberdrolak, “La Caixa” Gizarte Ekintzak eta Petronorrek.

Nazio Batuek sustatutako Global Action Plan – Ekintza Plan Globala izeneko nazioarteko programaren baitakoa da ekimena. Programa horrek pertsonen ohiturak aldatzeko ideia sinpleak eta ekintza praktikokoak proposatzen ditu, ikuspegi positiboa oinarri hartuta, betiere. Helburua baliabideak modu efizienteagoan erabiltzea eta planetan kalte txikiagoa eragitea da, bai eta etxeko eta tokiko ekonomia bultzatzea ere.

Aktibatu + programak familiek etxean eta ikasleek ikastetxean modu aktiboan parte har dezaten bultzatu nahi du, eta, gero, behin programa gauzatuta, gai hauek lantzea: erosketa-hondakinak, ura, energia eta mugikortasuna.



prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la 'mejor ciudad europea'. El Correo, 06-09-2017.

- Bilbao es una de las finalistas a Mejor Ciudad Europea 2018. Deia, 06-09-2017.

- Bilbao, entre las principales ciudades creativas y culturales del continente. Estrategia Empresarial, 01-09-2017.

- Bizkaia conquista cerca de 3.000 paladares en Escocia. Deia, 07-08-2017.

- La Bizkaia de los '50 Best' amplía en Escocia sus fronteras gastronómicas. El Correo, 04-08-2017.

- Bizkaia promociona su gastronomía en la capital de Escocia. Deia, 04-08-2017.

- Bilbao Metropoli-30 celebró su Asamblea Anual. Estrategia Empresarial, 01-07-2017.

- Cuatro colegios de Bilbao promueven hábitos de ahorro energético entre su alumnado. El Correo, 22-06-2017.

- "El lazo familiar ya existía entre Idaho y Euskadi, ahora queremos hacer negocios". El Correo, 16-06-2017.

- "Uniport puede aportar muchas ideas sobre el trazado de la VSF". Estrategia Empresarial., 16-06-2017.

- Delegaciones de Holanda y Argentina visitan Bilbao. Estrategia Empresarial., 16-06-2017.

- Empresas de Idaho detectan oportunidades en la aeronáutica y el sector ferroviario vascos. Deia, 14-06-2017.

- Rementeria presenta a Bizkaia como la "bahía de Europa" a una delegación de empresas de EEUU. El Correo, 14-06-2017.

- Las mentes pensantes del futuro de la metrópoli. Deia, 11-06-2017.

- Deia 40 aniversario. Deia, 11-06-2017.

- Le Guggenheim, un pionnier de 20 ans. Le Figaro, 06-06-2017.

- El programa Actívate + sigue fomentando buenas prácticas de sostenibilidad ambiental. El Correo, 05-06-2017.



www.bm30.es/prensa

UZTAILAK 3
 SKILLS. Elkargo
 Aurkezpeneko tailerra.
 Bizkaiko Industri Ingeniariei
 Elkargo Ofizialak.

UZTAILAK 5
 SKILLS. Elkargo
 Aurkezpeneko tailerra.
 UPV/EHU.

UZTAILAK 5
 SKILLS. Networking ekitaldia.
 Bilborock.

UZTAILAK 5
 BiDC. BEAZ.

UZTAILAK 6
 SKILLS. Elkargo
 Aurkezpeneko tailerra.
 Bizkaia Jaureriko Abokatuen
 Bazkun Ohoretsua.

UZTAILAK 10
 Belfasteko (Ipar Irlanda)
 Queen's Unibertsitatea
 bisitan
 Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

UZTAILAK 13
 BAI SAREAREN bigarren
 topaketa. Bilbao.

UZTAILAK 19
 BiDCk batzarra
 Abando hotela.

ABUZTUAK 24
 Herbeheretako ordezkariak.
 Miró hotela.

IRAILAK 1
 Hego Koreako ordezkariak.
 Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

IRAILAK 4
 Academy of Urbanism-
 Hirigintzako Akademiaren
 ordezkariak. Bilboko Udalak.

IRAILAK 14
 ANDREkintzailea programa:
 Zure enpresaren balio
 erantsia eta merkataritza-
 jarrera. BEAZ.

IRAILAK 19
 "Bilbao-Pittsburgh: Post-
 Industrial Cities" izenburuko
 workshop/mahai-ingurua.
 Bilbao Ekintza.

IRAILAK 21
 ANDREkintzailea programa:
 Bezeroekiko harreman
 eraginkorra. BEAZ.

IRAILAK 21
 Aktibatu + programaren
 Jarraipen Batzordea.
 Bizkaiko Foru Aldundiko
 Iraunkortasuna eta Ingurune
 Naturala Zaintzeko Saila.

IRAILAK 28
 ANDREkintzailea programa:
 Branding korporatiboa. .
 BEAZ.

URRIAK 6
 ANDREkintzailea programa:
 Enpresen networkinga. BEAZ.

URRIAK 9-13
 World Cities.
 Bruselas.

URRIAK 16-17
 ULI Annual Conference.
 Varsovia (Polonia).

URRIAK 19
 ANDREkintzailea programa:
 Koherentea da gure
 estrategia digitala?
 Entzunaldi aktiboa online I.
 BEAZ.

URRIAK 25-28
 Weisswasserreko ordezkariak
 (Alemania).
 Bilbao Metropoli-30
 elkarteak.

URRIAK 26
 ANDREkintzailea programa:
 Koherentea da gure
 estrategia digitala?
 Entzunaldi aktiboa online II.
 BEAZ.

AZAROAK 2
 ANDREkintzailea programa:
 Koherentea da gure
 estrategia digitala?
 Entzunaldi aktiboa online
 III.
 BEAZ.

AZAROAK 9
 ANDREkintzailea programa:
 ETE-entzako komunikabide
 sozialak I.
 BEAZ.

AZAROAK 16
 ANDREkintzailea programa:
 ETE-entzako komunikabide
 sozialak II. BEAZ.

AZAROAK 23
 ANDREkintzailea programa:
 Nola egin e-mail marketinga,
 SPAMA eragotzita. BEAZ.

AZAROAK 28
 ANDREkintzailea programa:
 B2B marketinga / Eraiki zure
 harreman profesionalen
 sarea Internetez/Social
 Selling I. BEAZ.

AZAROAK 28
 ANDREkintzailea programa:
 B2B marketinga / Eraiki zure
 harreman profesionalen
 sarea Internetez/Social
 Selling II. BEAZ.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano
 Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarteak
 Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.
 Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424
 Email: info@bm30.es - URL: http://www.bm30.es
 Facebook: http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30 Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
 HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA